

**ZELAN JAUNGOIKOARI
BURUZ BERBA EGIN?**

Fedearen Urtean, buru-belarri sartuta gagoz. Vatikanoko II. Kontzilioaren 50. urteurrena gomutatuz, Benedikto XVI.ak “Fede Urte” izendatu eban aurtengo urtea. Aita Santu ohiaren asmoa, kristau fedearen edertasuna sakondu eta aztertzea izango da. Beste ekintza askoren artean, eguaztenetako bere ageriko audientziak horretarako baliatzen hasi zan. Baina bere aitasantutza itzi ebanean, amaitu zan ohitura hori. Hitzaldi horreek zein baino zein ederragoak izan ziran. Bai gai aldetik eta bai bere hizkera errazaren aldetik.

Horrelako berbaldi bat aipatzera noa. “Zelan Jaungoikoari buruz berba egin?” Hau izango da berbaldi horren galdera nagusia. Berbaldi horren laburpentxo bat egitea besterik ez da izango nire lana.

Aita Santu ohia, beste bere berbaldi eta idatzietan bezala, hasiko da hainbat itaunekin. Besteak beste: “Zelan Jaungoikoari buruz berba egin?”, “zelan iragarri Ebanjelioa askotan gaurko munduaren argiekin liluratuta bizi dan jendeari? Antzeko metodoa erabiltzen ebala Jesusek ere gogoratzen deusku Benedikto XVI.ak. Markosen ebanjelioaren testu bat aipatzen dau:”Zeren antzekoa egingo dogu Jaungoikoaren Erreinuua?, edota “Zein parabolarekin azalduko dogu?” (Mk 4, 30).

Jesusen Jaungoikoa

Lehenengo eta behin, “Jaungoikoari buruz berba egitea posible da, Berak geugaz berba egin daualako”. Hori horrela dan ezker, Jaungoikoak egin deuskun berbea entzutea izango da lehendabiziko pausoa. Merezi dau testu eder hau hitzez hitz aipatzea: “Jaungoikoa ez da hipotesi urruneko bat munduaren sorburua adierazteko. Ez da urrutiko ‘inteligentzia matematikoa’ ere. Jaungoikua gugaz arduratzen da. Jaungoikoak pertsonalki maite gaitu. Jaungoikoa gizon egin dan ezker, gure historian sartu da. Gure biziaren bizia eta gure arnasaren arnasa dogu. Hain handia danez, badauko astia gugaz egoteko, gugaz bizitzeko. Nazareteko Jesusengan aurkitzen dogu Jaungoikoaren egiazko aurpegia. Gizon eginda gure bihotzetan eta erraietan murgilduta zoriontsuak izateko aukera emoten deusku”

Jaungoikoari buruz berba egitean, argi euki behar da, zelako Jaungoikoa nahi dogun iragarri gaurko gizon eta emakumei. Bestela jai daukagu! Ez edozelako teoria bat edo hipotesi bat edo ez dakit zelako filosofiako ideia bat... Jesusen Jaungoikoa ez da zerbait abstraktua, hor lainoetan dagoana. Jesusen Jaungoikoa ez da zerbait, Norbait baino. Jesusen Jaungoikoa Jesus Bera da. Jaungoikoa Jesus da.

Jaungoikoari buruz berba egiteko, ezinbestekoa Jesusegaz adiskidetasunean bizitzea. Ebanjelioaren arabera pentsatzea, sentitzea eta bere estilora jokatzeta. Beragaz maiteminduta bizitzea eskatzen dau. Jaungoikoaren umiltasunez beteriko bidea dogu. Ez da bide arrakastatsua, apaltasunezkoa baino. Horixe agertzen dau Belengo koban jaiotzeak edo Nazareteko arotzerian lan egiteak. Bardin ikusten da bere paraboletan ere gauza txikien balioa. Horra hor ziape-haziaren eta legamiaren parabolon adierazpena!. “Beharrezkoa da bildurrik ez izatea, ebanjelizatze orduan emoten diran pauso txikiei. Jaungoikoari buruz berba egitean, premiazkoa da xalotasuna eta sinpletasu-

na berreskuratzea” dino Aita Santu ohiak. Fedea intelektuali-zatzeko arrisku gorria edonon nabaritzen dan ezkeru, ez jako arrazoirik falta Benedikto XVI nari.

Kristau Barri Ona honetan datza: “Egiazko Jaungoikoa Maitasuna dan ezkeru, gugana etorri da gizon eginda, gurutzeraino maite izan gaitu eta biztuta betiko bizitza emoten deusku”.

Paulo apostolua irakasbide

Aita Santu ohiak, Paulo Apostolua jarten dau ebajelizatzaileen eredu. Bere estiloa, bere ausardia, bere umiltasuna, bere oinazeak izan ere txunditzeakoak ditugu. “Zuen artera joan nintzanean, anaiok, Kristoren autorra berba guren eta jakintsu barik iragarri neutsuen. Izan ere, ezer ez neban zuen artean jakin nahi, Jesukristo izan ezik, eta hau gurutzeratua” (1Kor 2, 1-2)

Ikusten danez, San Paulo ez da ari bere ideak eta bere pentsamenduak saltzen ere. Ez dau gura inondik inora bere buruari begira egon, ezta talde berezi bat sortu bere proiektuak eta asmoak aurrera eroteko. Bere grina eta lera guztia, Damaskoko bidean aurkitu eban: Jesus Jauna aldarrikatzea! Bere apostolutza izango da, “bere bizitzan bihotzeraino sartu jakon Jaungoikoa, gugaitik gizon egin, hil eta biztua iragarri mundu guztiari”.

Paulok ez dau bilatzen mundu honetako ohore eta arrakastarik, ezta lehen lekuri ere. Gauzea ez da norbere burutxoia erakustea edo txalo merkeen eske jardutea. Paulo ez da berriketari bat. Gitxiago oraindino papagaio errukarri bat. Gauzea da barru-barrutik sinistuta egotea, ez dagola ezer garrantzikoagorik Jesukristo baino. Bera baita Pauloren arnasaren arnasa, bere askatasunaren askatasuna, bere bihotzaren bihotza.

Horregaitik Aita Santu ohiaren ustez, ezinbestekoa da Jesusekin adiskidetasun benetakoa izatea. Eta hori Ebanjelio santua

hausnartuz, otoitz eginez eta batez ere, Jaunaren estilora jokatuz lortzen da. Fedea eta bizitza uztartuta egon behar dira Jaungoikoari buruz berba ondo egiteko. Ez da nahikoa Jauna!, Jauna! esatea, baita bere berbak eta mandatuak bete ere! Fedeak maitasun barik ez dau fruturik emoten.

Jesusen bizitzan nabaritzen da zelako maitasunez beteriko hartuemon egiazkoa eukan zeruko Aitagaz. “Abba” berba samurra (Aitatxo) erabilten eban otoitzean. Konfiantza osoa jar ten dau bere Aitarengan. Bere erreinuan makalenak eta alboratuenak izango dira kutunenak. Jaungoikoaren eta gizarteko premiazkoen aldeko apustua izango da beti Jesusena. Jaungoiko Aitaren presentzia izadiaren barnean eta gauza txikienetan ere ikusten eban. Bere paraboletan argi daukagu. Jaungoikoa historiaren erraietan biziko dau.

Eta berbaldia amaitzean, Benedikto XVI.ak gaur egungo balioei erne eta zuhur egotera deitzen deusku. Hiru balio handi aipatzen ditu gaurko gizartean: “Benekotasunaren gogo bizia”, “transzendentziaren irrika” eta “natura babesteko sentiberatasuna”. Balio honeek fedearen argitan aztertzeak merezi dau. Jaungoikoari buruz berba egitean, beharrezkoa da hiru balio horreek kontuan hartzea! Eta beste hainbat ezaugarri ere bai!

A. Olea